



2008ko xxxxx-ren xx-ko xx/2008 Foru Araua, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016ko Plan Orokorren Aurrerapen Agiria (2008-2016) onartzen duena

Sarrera

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, 2002ko abenduaren 17an, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016ko Plan Orokorra onartu zuenetik bost urte baino gehiago pasa dira eta denbora izan da, hain zuen ere, Aurrerapen Agiria egitera bultzatu gaituen arrazoi nagusia, denboraren eraginez Gipuzkoako hiri hondakinen kudeaketan izandako aldaketak jasotzeko asmoz.

Gainera, hondakinen kudeaketako arteztarauak ezarritako proposamen berriaren arabera, Batasuneko estatuek hondakinak kudeatzeko planak ebaluatu eta berrikusiko dituzte gutxienez sei urtean behin. Bestalde, EAEko hiri hondakinen planifikazio eta kudeaketarako jarraibideek (alorrari dagokion Erkidegoko araudia) ezarritakoa betez, bost urtean behin eguneratu behar dira Erkidegoko hiru lurraldeetako hiri hondakinen sorrera eta kudeaketako eszenatokiak.

Horregatik guztiagatik, beharrezkotzat jo da Aurrerapen Agiria idaztea, GHHKPOri dagokionez honako zeregin hauek egingo dituenak: hondakinen kudeaketari buruz Gipuzkoan eskura dauden datu berriak bildu eta aztertu; geroan sortuko diren hondakinen aurreikuspena eguneratu; hondakinen prebentzioari eta kudeaketari buruz dauden araudi eta estrategia berrien zehaztapenak gehitu; indarrean den hondakinen kudeaketari buruzko plangintzaren edukiak ebaluatu; hondakinak kudeatzeko bere garaian onartutako sistema orokorraren helburuak aurreikusi; zirriborratutako antolaketa eta gizarte partaidetzako alderdiak garatu; eta kudeatzeko beste aukera batzuk proposatu –haien azpiegiturak barne–, politika, gizarte eta erakunde eztabaidari irekita.

Beraz, Gipuzkoako Lurralde Historikoko hondakinen esparruko plangintza bi dokumentutan jasota geldituko da: bata, plangintzari dagokion oinarrizko agiria, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016ko Plan Orokorra, eta, bestea, 2008-2016rako Aurrerapen Agiria; azken horrek aurrekoa eguneratzen du denbora eta material aldetik. Horregatik, eta plangintza guztia agiri bakar batean sartzeko asmoz, Aurrerapen Agiriaren eranskin gisa GHHKPO gehitzea



aukeratu da, hartara, AAK aurreikusten ez dituen alderdietan GHHKPOk bere indarraldia berreskuratzen duela uler dadin.

Europako legediak nahiz estatukoak eta erkidegokoak, eta baita ere Garapen Iraunkorraren Ingurumen Estrategiak (2002-2020) ondorengo hierarkia ezartzen dute hondakinen kudeaketaren arloan lehentasunaren arabera: prebentzioa, berrerabilera, birziklapena, baloraziorako beste operazio batzuk eta, azkenik, ezabapena. Printzipio horiek aplikatuz, Eusko Jaurlaritzak "Euskadiko Autonomia Erkidegoko hiri hondakinen plangintza eta kudeaketarako jarraibideak 2010" izeneko agiria onartu zuen 2007ko abenduaren 26an. Agiri horretan aipatutako hondakinen plangintza eta kudeaketarako oinarriak zehazteko jarraibideak jaso eta konponbideen osagarritasuna eta irizpideen homogeneotasuna bermatzen dira, betiere, hondakinei buruzko prebentzio, balorizazio eta ezabapen printzipioak kontuan hartuta.

Bestalde, 1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Orokorrak, 74. artikuluan, lurralde historiko bakoitzeko foru organoen esku uzten du hondakinen kudeaketaren oinarriko plangintza garatzea, horretarako dagozkion foru planak onartuz. Lege horrek ezarritakoa betez, lortu beharreko helburuak, garatu beharreko estrategia, azpiegiturak egiteko planak eta finantzaketa sistemak zehazten dituzten xedapenak jaso behar dituzte aipatutako planek.

Aurrekoarekin bat etorriz, 2008ko apirilaren 14ko Foru Aginduaren bidez, Garapen Iraunkorrekoko foru diputatuak hasiera eman zion Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorren Aurrerapen Agiria onartzeko prozedurari, abian jarrita aurreproiektuari buruzko entzunaldi, kontsulta eta jendaurreko tramitea. Tramite horretan ingurumen eraginaren baterako ebaluazio azterketa erantsi zaio agiriari, 2006ko apirilaren 28ko 9/2006 Legeak ingurumenarekin lotutako plan eta programa jakin batzuen eraginaren ebaluazioari buruzkoak, eta 2003ko uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak, ingurumen eraginaren baterako ebaluazio prozedura arautzen duenak, ezarritako baldintzak aplikatuz; aldi berean, 2006ko uztailaren 18ko 27/2006 Legea aplikatu da, izan ere, lege horrek arautzen du, besteak beste, jendeak duen eskubidea ingurumenarekin zerikusia duten plan, programa eta izaera orokorreko xedapen jakin batzuen prestaketan parte hartzeko. Halaber, Euskal Herriko Ingurumen Batzordeak eta Ingurumenaren Aholku Kontseiluak aurreproiektuari buruzko txostena egin zuten, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluakan onartu zuen agiri hura.

Azkenik, 2005eko uztailaren 12ko 6/2004 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 9. artikuluan 3. atalean, lurralde osoari dagozkion sektoreko plan bereziak foru



arauaz erregulatzeko erreserba aurreikusten du eta, beraz, Batzar Nagusiei dagokie proposatzen den Foru Arauaren bitartez Plana on artzea.

1. artikulua.- Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016ko Plan Orokorren Aurrerapen Agiria (2008-2016) onartzen da. Foru arau honekin batera doa eranskin gisa.

2. artikulua.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko hiri hondakinak kudeatzeko politikaren helburu nagusia herritarrei ahalik eta kalitaterik eta kosturik homogeenorekin zerbitzua ematea da, ingurumenaren babesean ahalik eta mailarik handiena eskainiz, eta indarrean dagoen araudiaren eskakizunak nahiz garapen iraunkorraren printzipioak betez.

3. artikulua.- Gipuzkoako hiri hondakinen kudeaketak honako printzipio hauek ditu oinarri:

- a) Hondakinen kudeaketa iraunkorraren printzipioa
- b) Erkidegoko kudeaketa hierarkiaren printzipioa
- c) Kudeaketa osoaren printzipioa
- d) Hiri hondakinen prebentzioaren printzipioa
- e) Hiri hondakinen balorizazioaren maximizazio printzipioa
- f) Hiri hondakinen isurketaren minimizazio printzipioa
- g) Autosufizientziaren printzipioa
- h) Hurbiltasunaren printzipioa
- i) Administrazio subsidiariotasunaren eta erantzukizun partekatuen printzipioa
- j) Prezio gardentasunaren printzipioa
- k) Informazio gardentasunaren printzipioa

4. artikulua.- Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak sinatu beharreko Lankidetzak Hitzarmenean zehaztuko dira Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016ko Plan Orokorren 2008-2016rako Aurrerapen Agiriak ezarritakoa betetzeak lurraldearen aurrekontuan ekarriko dituen konpromisoak.



AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehenengoa.- Baimena ematen zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluari foru arau hau garatu eta gauatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena.- Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.



I. ERANSKINA GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINAK KUDEATZEKO 2002 -
2016KO PLAN OROKORRAREN 2008-2016RAKO AURRERAPEN AGIRIA
(agiriak berak, ingurumen eraginaren baterako ebaluazio azterketak
eta 2002-2016ko GHHKPOk osatzen dute)